

OHAR GARRANTZITSUA: BERRIRO HASIKO DA PROZEDURA IZAPIDETZEN. ESKAERAK AURKEZTEKO EZOHICO NEURRIAK

Berriro hasiko dira prozedurak izapidetzen eta administrazio-epaek zenbatzen. Eskabideak zuzentzeko falta den epea: **2020ko ekainaren 1etik 9ra** bitartean.

Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua, alarma-egoera luzatzen duenak, ondorioz gabe utzi ditu, 2020ko ekainaren 1etik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako epemugak etetea eta administrazio-epaek etetea (COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu du dekretu horrek).

Ondorioz, onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrendan jasotako eskabide osatugabeak edo akastunak zuzentzeko 10 eguneko epea berriz zenbatzen hasiko da. Zerrenda hori Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web-orrian argitaratu zen, 2020ko martxoaren 10ean.

Eskatzaileek 7 egun balioduneko epea izango dute, 2020ko ekainaren 1etik 9ra, biak barne, adierazitako zuzenketak aurkezteko. Epe hori igarotakoan, zuzendu gabeko akatsak dituzten eskabideek atzera egin dutela ulertuko da.

Eskarrien aurkezpena.

COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoerak eragindako ezohiko egoera dela-eta, ahal dela, UPV/EHUko Egoitza Elektronikoa dagoen **Erregistro Elektronikoa** erabiliko da. Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetza aukeratu da hartzaile gisa, eta eskatutako dokumentazio gehigarria erantsiko da (<https://egoitza.ehu.eus/egoitza/erregistro?check=ok&langId=eu>).

Ez da gomendatzen UPV/EHUko erregistro-bulegoak erabiltzea, ez eta posta-bulegoak ere, dokumentazioa paperean aurkezteko. Hala ere, erregistro-bulegoak erabiliz gero, kontuan izan behar da 2020ko maiatzaren 26tik aurrera alde aurretik hitzordua eskatuta baino ez dutela erantzungo, 09:00etatik 13:00etara (<https://www.ehu.eus/documents/2989329/0/resoluci%C3%B3n-apertura-registro/ce79f8fc-f879-dc8e-3aa9-582d54cbc393>).

Leioa, 2020ko maiatzaren 29a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA